

Larrutsak eta azalutsak

Jay Fox

1911-07-01

Jantziak gorputza babesteko egin ziren, ez bera ezkutatzeko. Lizunkeria giza gorputzarekin lotzen duen huraxe lizuna da. Gizaldeko eta idealistentzat giza gorputza zoragarria da, *arimaren etxea*, antzinako poetek abesten zuten eran. Oro har, sineskeri eta sentsualismoaren nahasketaz blai dagoen erdi zibilizatutako basati arrunt batentzat, gorputz biluzi bat ikusteak ez dio iradokitzen ez pentsamendu gorenik, ez sentimendu nobleagorik, sorreraren ordena baxuagoko animala baten itxurak beste bategan eragiten duena baizik. Buru arruntak bere burua islatuta ikusten du gauza guztietan. Kutsadurak ezin du kutsaduratik ihes egin, eta kutsatutako buruak bere islapena ikusten du lagun baten gorputz biluzian, eta goizean goizik altxatu eta festa arruntera batzen da, jende zibilizatuarentzat egokia ez den eta saihestu beharreko lagunari, sen basatia piztu dion gorputz garbiaren biktima errugabeari, legearen bitartez zigortzeko. Islapen hauek, Home-n⁽¹⁾ duela gutxi gertaturiko zorigaiztoko gertakari batean oinarrituta daude. Arima libreen komunitate bat da Home, apaizek pozoitutako gizarte konbentzionaren egurasetik ihes egitearren basoetara joatea erabiki duten jendez osatua. Home-tarrek gozatzen zituzten askatasunen artean, gaueko soinekoarekin edo naturak eskainitako arroparekin bainatzea zen, beraiek nahi zuten moduan. Inor ez zen ikusle-mikusle gisa hara joaten pertsona bakoitzak zein jantzi zerman ikusteko, badiako ur garbien bila baizik. Bada, ez zitzaion inori axola. Guztiak aski garbiak ziren pentsamenduz naturaren estali gabeko maisulanean zakarkeriarik eta iradokizun maltzurrik edo lizunik ez ikusteko. Baina, azkenean, zenbait azaluts komunitatera batu ziren, eta jendeari askatasuna kentzeari ekin zioten, kanpoko munduko arrakala eta bortizkeriaz baliatuz. Lau pertson atxilotu zituzten *erakuseria* delitupean. Bi ume txikiren ama zen emakume bat espetxeratu zuten. Atxilotutako gizon batek ere kartzela zigorra bete beharko du. Ekintza maltzur hauen egileak, oraindik, boikotatuak zergatik izaten ari diren galdezka dabilta. Jendeak merezi duen sumina piztu da. Beren askatasuna eraso dute. Komunitateak jasaten duen kanpoko jazarpena menderatzeko lehen urratsa egin da. Liskar hau erresistentziarik gabe baztertua izango balitz, azalutsek erraz izango lukete aurrera egitea. Ordea, gurekin bizitzera etorri ziren burugabe horiek, gure lankidetzaz baliatzera eta salgaiak berton merkeago erostera etorritako horiexek, liztortzar baten habian sartu direla ohartu dira. Dauden dendetatik bik beraiekin tratuak egitea ukatu dute, eta bertoko kideak haiek saihesten ahalegintzen dira ahal duten modu guztietan. Egia esan, guztiak ez dira hona gerturatu egoeraren garrantzia ikustera. Baina, dabilta horien propagandak diharduko du, eta arerio hauek gure artetik saihesteko kausa azkeneraino eramango da. Lerroak egingo dira eta askatasunean sinestarazten dabiltaanak proba egin ahal izango dute. Ez dago leku posiblerik libertarioek bertara ihes egin dezaketenik Home-ren askatasuna babesteko ahalegin honetan parte hartzen dutelarik. Ez dago erdiko terminorik. Babesten laguntzea ukatzen duten horiexek [sic] beste aldekoek laguntzen ari dira. Askatasuna nahi duten, baina borrokatzeko asmorik ez duten horiexek bizkarroiak dira eta ez dute askatasunik merezi. Inbasioa bost axola zaion, emakume bati bere umeak kendu eta kartzelara bidali dutela jakin ondoren neurririk hartzen ez duen huraxe, ezin da jo autoritatearen jazarletzat. Bere lekua arerioaren alboan dago. Boikota aurrera eramango da inbaditzaile hauek beren ekintza zakarraz ohartzuten diren arte, eta horrela, jendeari jakinarazteko. Gai honi buruz gehiago hausnartuko dugu hurrengo zenbakietan.

⁽¹⁾ Pierce konderriko (Washington, AEB) lekua, erroldak izendatutakoa. Hondartza-etxeen herri bat da nagusiki, nahiz eta XX. mendearen hasieran anarkisten komunitate utopikotzat jo zuten. Iturria: Wikipedia

Liburutegi anarkista



Jay Fox
Larrutsak eta azalutsak
1911-07-01

2024ko otsailaren 6an eskuratua hemendik: louisecrowleylibrary.org
Artikulu hau, 1911ko uztailaren 1ean agertu zen lehen aldiz *The Agitator* egunkarian, eta Fox-i bi
hilabeteko kartzela zigorra epaitu zioten. Itzulpenaren jatorria.

eu.anarchistlibraries.net